| 2017KO URRIAREN 25EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 25 DE OCTUBRE DE 2017. |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| ALKATEORDEAK | TENIENTES DE ALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Enrique Olaso García (GUK)

Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**171.- GETXOKO UDALBALTZAK 2017KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**171.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 27 DE SEPTIEMBRE DE 2017.**

2017ko irailaren 27an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 27 de septiembre de 2017

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA,**

**BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**172.- UDAL-DIRUZAINTZAREN HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETE BEHARREZ (2017KO 3. HIRUHILEKOA).**

Proposamena irakurrita, Inazio Uriartek, udal-diruzainari emandako txostenari dagokionez, fakturen % 88,92 legezko epeen barruan ordaindu direla eta ordaintzeko batez besteko epea 10,5 egunekoa izan dela adierazi du.

Eduardo Andradek oposizioak egiten duten kontrol-lanaren helburua gobernu-taldearen kudeaketa hobetzeko dela esan du, baina Udal honetan hori ez dela gertatzen, hiruhileko honetan, fakturen % 10 baino zertxobait gehiago epez kanpo ordaindu direlako, eta ehuneko hori aurreko hiruhilekokoa baino handiagoa da; baita iazko hiruhilekoa baino handiagoa ere. Guztira 131 faktura ordaindu dira epez kanpo, eta haien atzetik, egindako ordainketaren zain dauden pertsonak eta familiak daude. Epe barruan ordaintzeko esfortzua egitea eskatu du. Adierazi du Ogasun Batzordeak urtebeteko kontrolik eza daramala zenbait aitzakiarekin, deuseztatu behar izan diren kobratzeko ordainagiriak egin dituelako. Beste batzuk ez dira zuzen egin, interesak sortu dituzte, ez da aurkeztu hirugarren hiruhilekoaren aurrekontuaren betearazpena eta abar. Horren ondorioz ez dakigu egiazki zein den udalaren benetako egoera. Bere ustez, hobetu behar den egoera ezezagun batean dago Ogasun arloa.

**RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**172.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME TRIMESTRAL DE TESORERIA EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY 15/2010 (3º TRIMESTRE DE 2017).**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte para indicar con referencia al informe de la Tesosera que el 88,92% de las facturas se han abonado en los plazos legales y que el periodo medio de pago ha sido de 10,5 días.

Eduardo Andrade interviene para indicar que la labor de control que realiza la oposición tiene como finalidad hacer mejorar la gestión del equipo de gobierno pero que en este ayuntamiento eso no sucede ya que en este trimestre algo más de un 10% de las facturas se han pagado fuera de plazo, que es un porcentaje superior al del trimestre anterior y también al del mismo trimestre del pasado año. Se han pagado fuera de plazo 131 facturas y detrás de las mismas hay personas y familias que están pedientes del pago realizado. Pide que se realice un esfuerzo para pagar en plazo. Indica que en la Comisión de Hacienda se lleva un año de descontrol con diferentes excusas ya que se han emitido recibos a cobro que han tenido que ser anulados, otros se han emitido de manera incorrecta, otros han generado intereses, no se ha presentado tampoco la ejecución presupuestaria del tercer trimestre, etc., lo que también genera un desconocimiento sobre la situación real del ayuntamiento. Cree que el área de Hacienda se encuentra

en una situación desconocida que debe ser mejorada.

Inazio Uriartek erantzun dio udal-diruzainaren txostenaren arabera epez kanpo ordaindu direla izapide hori egiteko epez kanpo ere egin direlako. Bestalde, kontu-hartzaule nagusiak aurrekontuen gauzatze-egoerari buruzko azalpenak eman ditu Informazio Batzordean, eta ezin izan dena zehaztu, zergatik izan den azaldu du.

Inazio Uriarte replica que el informe de la Tesorera indica que se ha abonado fuera de plazo porque esas facturas han sido conformadas también fuera del plazo para dicho trámite. Por otra parte, la Interventora general ha dado explicaciones ante la Comisión Informativa sobre el estado de ejecución de los presupuestos y lo que no se ha podido concretar se ha explicado por qué razones ha sido.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

IT 008-2017 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería IT 008-2017 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

**173.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: AURREKONTUA GEHIGARRIZKO KREDITUZ BALIATUTA ALDARAZI.**

**173.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.**

Proposamena irakurrita Enrique Pradak hitz egin du. Komunikazio-planari buruzko 3089/2017 Dekretuari dagokionez esan du urtebete baino gehiago daramatela itxaroten gai horiei buruz gobernu-taldea egiten ari den gogoetaren emaitza. Bere ustez, gardentasun gutxi dago, eta Getxoberrik gobernu-taldearen politikaren berri emateko bakarrik balio du.

Tras darse lectura a la propuesta, interviene Enrique Prada para indicar que en relación al Decreto 3089/2017, relativo a plan de comunicación manifiesta que llevan más de un año esperando el resultado de la reflexión que sobre estas materias está realizando el equipo de gobierno. Cree que hay poca transparencia y además que el Getxoberri solo sirve para comunicar la política del equipo de gobierno.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos

Humanos, Juventud y Euskara,

Kreditu gehigarrien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

3028//2017 zenbakidun Dekretua 365.170,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/40. Getxo Kirolaken gastu arruntetatik, transferentzia arruntetatik, langileria-gastuetatik eta inbertsioetatik datozen gastuetarako finantzaketa.

Decreto nº 3028//2017 por un importe de 365.170,00 euros. Crédito adicional 2017/40. Financiación para gastos derivados de gastos corrientes, transferencias corrientes, gastos de personal e inversiones de Getxo Kirolak.

3089///2017 zenbakidun Dekretua 35.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/41. . Komunikazio Plana. Herritarrekiko komunikazio-harremanak hobetzeko proiektua.

Decreto nº 3089//2017 por un importe de 35.000,00 euros. Crédito adicional 2017/41. Plan de Comunicación. Proyecto de mejora de relaciones comunicativas con la ciudadanía.

3640//2017 zenbakidun Dekretua 5.267,57 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/42. Turismoko jarduera erregularrak abian jartzeko laguntzen finantzaketa –4. lerroa.

Decreto nº 3640//2017 por un importe de 5.267,57 euros. Crédito adicional 2017/42. Financiación de las ayudas para la puesta en marcha de actividades turísticas regulares – Linea 4.

3725//2017 zenbakidun Dekretua 75.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/43. Udal eraikinen mantentze lanak.

Decreto nº 3725//2017 por un importe de 75.000,00 euros. Crédito adicional 2017/43. Trabajos de mantenimiento de edificios municipales.

4054//2017 zenbakidun Dekretua 40.210,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/44. Musika Eskola erakundearen bekei dagokien diru-koporua gehitzea.

Decreto nº 4054//2017 por un importe de 40.210,00 euros. Crédito adicional 2017/44. Incremento en la dotación de las becas del Organismo Autónomo Escuela de Música.

**174.- AURREKONTUAREN ALDAKETAK FINANTZATZEKO ASMOZ 2016KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA 2017KO DENBORALDIAN**

**174.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME 8/2017 DE SOSTENIBILIDAD FINANCIERA EN RELACIÓN CON LA UTILIZACIÓN, DURANTE EL CORRESPONDIENTE PERIODO 2017 (PRIMER, SEGUNDO Y TERCER TRIMESTRE), DEL**

**(LEHENENGO ETA BIGARREN HIRUHILEKOAN) GASTU OROKORRETARAKO ERABILTZEA DELA ETA, FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN 8/2017 ZENBAKIDUN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

1.- Udaleko Kontu-hartzailetzak finantza iraunkortasunari buruz egindako urriaren 11ko 8/2017 txostenaren edukiaren jakitun egon diruzaintzako geldikina erabiltzeari dagokionez, 2017ean (lehenengo, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan), aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

2.- 8/2017 txosten hori Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailari igortzea, osoko bilkuraren akta eta euskarri izan daitekeen gainerako dokumentazioarekin batera.

**REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES OBTENIDO EN LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2016 PARA FINANCIAR MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

1º.- Quedaron enterados del contenido del informe de la Intervención Municipal Nº 8/2017, de 11 de octubre, sobre sostenibilidad financiera en relación con la utilización del remanente de tesorería para financiar modificaciones presupuestarias durante el 2017 (primer, segundo y tercer trimestre).

2º.- Remitir dicho informe Nº 8/2017, junto al acta de la sesión del Pleno y demás documentación que sirva de soporte, al Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

**175.- BI DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

3793/2017 zenbakidun Dekretua

**175.- DACIÓN DE CUENTA DE DOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

Decreto nº 3793//2017 por un importe

32.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/15 kreditu-transferentzia. Familientzako laguntzak.

de 32.000,00 euros. Transferencia de credito 2017/15. Ayudas a familias.

4003/2017 zenbakidun Dekretua 10.890,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/16 kreditu-transferentzia. Euskadiko 2017ko Kultur Berrikuntzako jardunaldia.

Decreto nº 4003/2017 por un importe de 10.890,00 euros. Transferencia de credito 2017/16. Jornada Innovación Cultural de Euskadi 2017.

**176.- 2017RAKO ORDAINSARIEN % 1EKO ORDAINKETA-GEHIKUNTZA EGITEA.**

**176.- INCREMENTO RETRIBUTIVO DEL 1% DE LAS RETRIBUCIONES PARA EL AÑO 2017.**

Proposamena irakurrita, Inazio Uriartek proposamena eta haren legezko oinarriak azaldu ditu. Proposamenak legez egin daitekeen igoerarik handiena barne hartzen duela adierazi du, beraz, soldata berreskuratzeko politika batekin bat datorrela.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte que explica la misma y los fundamentos legales que la sustentan, indicando que la propuesta incorpora el máximo incremento posible legalmente siendo con ello coherentes con una política de recuperación salarial.

Paula Amievak adierazi du normalean Udalbatzari langile proposamen bat egiten zaionean Uriarte jauna harro jartzen dela, Negoziazio Mahaian sindikatu guztiek aho batez onartzen dutelako, eta proposamen horren alde agertzen ez direnei aurpegiratzen diela. Kasu honetan ez dago ez ELAren ez LABen babesa, eta soldata-igoera EAJk onartu zuen Aurrekontu Legeak ezarri zuen. EAJk langileen arloan agertzen duen utzikeria kritikatu du. Gogoratu du 1980. urteko Lanpostuen Balorazio bat indarrean dagoela, baina onartzen du 2005. urtean saiatu zirela beste bat egiten, baina azkenean ez zutela egin, eta hortik aurrera ez dela aurreratu. Beraz, administrazioaren funtzionamenduaren kalterako da. Azpimarratu du EAJren hainbat konpromiso egon direla lanpostuak baloratzeko, baina inoiz ez dituela bete, eta bere ustez, 12 urte nahikoa denbora

Paula Amieva manifiesta que normalmente cuando se presenta una propuesta de Personal al Pleno por el señor Uriarte suele sacar pecho manifestado que la misma tiene el apoyo unánime de todos los sindicatos en la Mesa de Negociación y reprocha a aquellos grupos que no apoyen dicha propuesta. En este caso no existe el apoyo ni de ELA ni de LAB y el incremento retributivo se ve marcado por la Ley de Presupuestos que en su día aprobó el PNV. Critica la desidia del PNV en materia de personal. Recuerda que está vigente una Valoración de Puestos de Trabajo del año 80, aunque reconoce que el año 2005 hubo un intento que no se llevó a cabo pero desde entonces no se ha avanzado, lo que va en perjuicio del funcionamiento administrativo. Insiste en que ha habido multitud de compromisos del PNV para realizar la

da prozesu hori egiteko. Horren ondorioz, udalak zuzen baloratutako egiturak izango lituzke eta funtzionamendua eta eraginkortasuna hobetuko lukete. Beste esparru batzuetan dauden gabeziak kritikatu ditu, hala nola organigrama falta, behin-behinekotasuna eta abar. Horrek, langileen kudeaketan erantzukizun falta erakusten duela esan du.

valoración de puestos de trabajo que siempre ha incumplido y estima que 12 años es tiempo más que suficiente para realizar dicho proceso que tendría como resultado dotar al ayuntamiento de unas estructuras correctamente valoradas que mejorarían el funcionamiento y eficacia. Critica también las carencias en otros ámbitos como la falta de organigrama, la eventualidad, etc., lo que evidencia una falta de responsabilidad en la gestión de personal.

Ibon Rodríguezek adierazi du EH Bilduk proposamenaren alde bozkatuko duela, baina ez dagoela ados. Langile publikoek, dagoeneko asko sufritu dutenek, gehiago sufritzen jarraitu behar ez izateko egingo dute alde. EAJk Madrili kasu eginez jarraitzen du, eta langile publikoen ordainsariak mugatzen dituen Aurrekontuen Legearen alde egin du. Gogoratu du 2010. urtean Zapateroren Gobernuak % 5eko murrizketa orokorra ezarri zuela ordainsarietan, geroago zenbait urtetan izoztu zuela, aparteko ordainketa bat ere galdu zuen, baina gero berreskuratu zuten, eta 2016. urtean % 1 handitu da ordainsaria, Euskal Autonomia Erkidegoan KPI % 1,52 handitu bada ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoan KPI 2017an % 1,9 handitu den arren, % 1eko igoera ere egin da soldatan, beraz, gaitasun ekonomikoa galtzen jarraituko dugu. Esperi du egunen batean Euskal Herriak libreki erabaki ahal izatea bere langile publikoen ordainsariak. Bere ustez irudimenezko irtenbideak bilatu behar dira Madrili aurka egiteko, eta horietako bat lanpostuen balorazioa izan daiteke. Bere ustez, sindikatuek uste dute motel bada ere aurrera egiten ari dela prozesu honetan. % 1eko igoera lineala proposatzen da, eta horrek

Ibon Rodríguez manifiesta que EH Bildu va a votar a favor de la propuesta aunque no están de acuerdo. La apoyarán para que los trabajadores públicos, que ya han sufrido mucho, no tengan que seguir sufriendo más. El PNV sigue obedeciendo a Madrid y ha apoyado la Ley de Presupuestos que limita las retribuciones de los empleados públicos. Recuerda que el año 2010 el gobierno de Zapatero impuso un recorte global del 5% a las retribuciones, posteriormente llegaron años de congelación, también de la pérdida de una paga extra, aunque luego se recuperó y en el año 2016 se ha incrementado la retribución en un 1%, cuando el IPC ha subido en la Comunidad Autónoma del País Vasco el 1,52 y el año 2017 el IPC en la Comunidad Autónoma del País Vasco sube un 1,9% y el incremento ha sido también del 1%, lo que supone seguir perdiendo capacidad económica. Espera que llegue el día en que Euskalherria pueda decidir libremente también sobre las retribuciones de sus empleados públicos. Cree que hay que buscar soluciones imaginativas para oponerse a Madrid y la valoración de puestos de trabajo puede ser una de ellas. Transmite que los sindicatos creen que aunque sea una manera lenta se

aldeak handitzen ditu. Horrela aplikatzen da, legeak horretara ez badu behartzen ere, soldata-masaren % 1eko igoera muga ezartzen duelako.

está avanzando en ese proceso. La propuesta es del 1% de subida lineal, lo que aumenta las diferencias y se aplica de esa manera aunque la ley no obliga a ello ya que lo que marca es un límite del 1% del incremento de la masa salarial.

Eduardo Andradek adierazi du PPk proposamenaren alde egingo duela. % 1eko igoera Estatuko Aurrekontuen Legean oinarrituta dago, bere helburua enplegua berreskuratzea eta hazkunde ekonomikoa sustatzea baita, % 3ko igoerara helduz, azkenaldian ezezaguna dena. Funtzionarioei eskatutako esfortzua aitortu du, baia bere ustez, ezinbestekoa da Estatuan gizarte-babesa bermatzen duen aurrekontu bat lortzen laguntzeko. Gogoratu du dagoeneko bi urtetan igo dituela langile publikoen soldatak PPk.

Eduardo Andrade manifiesta que el PP va a apoyar la propuesta. La subida del 1% esta basada en la Ley de Presupuestos del Estado que busca recuperar el empleo y potenciar el crecimiento económico llegándose a un 3% de crecimiento, cifra desconocida últimamente. Reconoce el esfuerzo exigido a los funcionarios pero cree que son necesarios para facilitar un presupuesto en el Estado que favorezca la protección social. Recuerda que ya se llevan dos años con el PP incrementando los salarios de los empleados públicos.

Inazio Uriartek azaldutakoa berretsi du eta argitu du Negoziazio Mahaiko sei sindikatuetatik laurekin akordioak egin dituztela.

Inazio Uriarte se ratifica en lo explicado aclarando que se han llegado a acuerdos con cuatro de los seis sindicatos de la Mesa de Negociación.

Paula Amievak onartzen du sindikatuekin harremanetan jarri dela, bakoitzaren iritzia zein den jakiteko, Ogasuneko Informazio Batzordean galdetu bazuen ere, Langileen zinegotziak ez zizkiola adierazi sindikatu bakoitzak hartu zuen jarreraren arrazoiak.

Paula Amieva reconoce que se ha puesto en contacto con los sindicatos para conocer la opinión de cada uno de ellos, ya que en la Comisión Informativa de Hacienda, pese a preguntarlo, no le fueron transmitidas por el concejal de Personal las razones que motivaron la postura de cada uno de los sindicatos.

Inazio Uriartek adierazi du informazio-batzordean argi erantzun ziola, eta dagozkien solaskideengana jotzea esan ziela haien iritzia ezagutzeko.

Inazio Uriarte manifiesta que en la comisión informativa respondió de forma clara, derivando a los interlocutores correspondientes a conocer su opinión.

Santiago Sainzek gogoratu du Aurrekontuen Legean PPrekin egin

Santiago Sainz recuerda el pacto al que se llegó con el PP en la Ley de

zuten ituna, Ciudadanos alderdiaren eskutik, beraz, proposamenaren aldeko botoa emango dutela. Horrez gain, akordio horren ondorioz, autonomoen, gazteen, haurren pobreziaren, eskola-porrotaren eta bestelakoen inguruko aldeko beste neurri batzuk ere hartu zituztela.

Proposamena bozkatu eta aho batez onartu dute.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenengoa.- Funtzionarioen ordainsariak % 1 gehitzea, ordainsarien kontzeptuetan. Gehikuntza ondoko irizpideen arabera egingo da:

Oinarrizko ordainsariak.- Ordainsari horiek funtzionarioari ordaintzen zaizkio bere kidegoa edo eskala atxikita dagoen talde edo azpitaldearen arabera eta horretan duen antzinatasunagatik. Horien barruan soldataren osagarriak eta aparteko ordainsarien hirurtekoak daude. Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek ezartzen dute zenbatekoa.

Soldata: Soldataren zenbatekoa sailkapen-taldea edo azpitaldearen arabera ezartzen da eta 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.bost 1 artikuluan xedatuta dago. 2016. urtearekin alderatuz, % 1 gehitu da.

Hirurtekoak: zenbateko bera

Presupuestos, por parte de Ciudadanos, por lo que votarán a favor de la propuesta, indica también que de dicho acuerdo se derivaron también otras medidas favorables relativas a autónomos, jóvenes, pobreza infantil, fracaso escolar, etc.

Sometida la propuesta a votación se aprueba por unanimidad.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por unanimidad se acordó:

Primero.- Incrementar las retribuciones del personal funcionario, en los conceptos retributivos en un 1%. El incremento se realizará de acuerdo con los siguientes criterios:

Retribuciones Básicas.- Son las que retribuyen al funcionario según la adscripción de su cuerpo o escala a un determinado Grupo o Subgrupo y por su antigüedad en el mismo. Dentro de ellas están comprendidas los componentes de sueldo y trienios de las pagas extraordinarias. Su cuantía se fija por las leyes de Presupuestos Generales del Estado

Sueldo: Su cuantía viene determinada por el grupo o subgrupo de clasificación y está determinada en el artículo19.cinco 1 de la ley 3/2017, de 27 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2017. Respecto de las cuantías del año 2016 han experimentado un incremento de un 1%.

Trienios: consisten en una

izango da azpitalde guztientzat eta lan egindako hirurteko bakoitzeko ordaintzen da. Oinarrizko soldata bezala, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.bost 1 artikuluan xedatu da hirurtekoen zenbatekoa eta % 1 gehitu da 2016. urteakoarekin alderatuta.

cantidad, que será igual para cada Subgrupo, por cada tres años de servicio, al igual que el Salario Base, su cuantía se determina en el artículo 19.cinco 1 de la ley 3/2017, de 27 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2017 y se ha incrementado en un 1% respecto de las del año 2016.

| **Taldea / Azpitaldea / 7/2007 Legea** ***Grupo / Subgrupo Ley 7 / 2007*** | **Soldata (eurotan)** ***Sueldo (euros)*** | **Hirurtekoak (eurotan)** ***Trienios (euros )*** |
|---|---|---|
| A1 | 13 .576,32 | 522,24 |
| A2 | 11 .739,12 | 425,76 |
| C1 | 8 . 814,12 | 322,20 |
| C2 | 7 .335,72 | 219,24 |
| **(30/1984 Legea) eta talde profesionalak (7/2007 Legea)** E ( Ley 30 / 1984 ) y Agrupaciones Profesionales ( Ley 7 / 2007 ) | 6 . 714,00 | 165,00 |

Ordainsari osagarriak: horiekin lanpostuen ezaugarri bereziak ordaintzen dira, lanbide-karrera edo jarduera, errendimendua edo funtzionarioak lortutako emaitzak. Udalbatzaren Osoko Bilkurak ezarriko du zenbateko orokorra Estatuak adierazitako gehienezko eta gutxieneko mugen barruan (TAOLaren 93.2 artikulua).

Retribuciones Complementarias: son las que retribuyen las características de los puestos de trabajo, la carrera profesional o el desempeño, rendimiento o resultados alcanzados por el funcionario. Su cuantía global será fijada por el Pleno de la Corporación dentro de los límites máximos y mínimos que se señalen por el Estado ( art. 93.2 de la LBRL).

Lanpostu-mailako osagarria: Lanpostuaren mailaren araberakoa da eta osagarriaren zenbatekoa urtero ezarriko da Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1a artikuluak ezartzen duen bezala;

Complemento de Destino: Correspondiente al nivel del puesto que se desempeñe, cuya cuantía se fijará anualmente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi tal y como determina el artículo 79.1a de la ley 6/1989 de 6 de julio de la Función Pública Vasca, y que

aurrekontu horiek % 1 gehitu dira 2017 ekitaldirako.

Osagarri berezia: zailtasun tekniko bereziko baldintzak ordaintzen ditu, baita dedikazioa, erantzukizuna, bateraezintasuna, arriskua edo nekagarritasuna ere. Lanpostuen zerrendan ezartzen da horren zenbatekoa. Irizpide horiek aplikatuz gero zenbatekoak aldatu behar dira; lanpostuen zerrendan jasotako zenbatekoak eta lanpostu-mailako osagarria. Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio onespena egitea eta % 1eko gehikuntza egitea.

Antzinatasunezko osagarri pertsonala eta osagarri pertsonal iragankorra: Getxoko Udaleko langile batzuek horiek jaso izan dituzte, 2008ko urriaren 31n osoko bilkurak hartutako erabakiaren bidez onartutako Ordainsarien Egokitzearen ondorioz. Erabaki horrek aurretik jasotzen ziren ordainsarien kontzeptuak UDALHITZ erabakian jasotako xedapenetara egokitu zituen. Aipatutako UDALHITZ erabakiaren 85. artikuluan, aurreikusi zen osagarri horiek jasoko zirela ordainsari-sistema berria aplikatzeagatik, aurretik jasotzen ziren ordainsariak murritzen ziren kasuetan. Osagarri horiek eguneratu ahal dira; beraz, indarreko zenbatekoei % 1eko gehikuntza aplikatu behar zaie. % 1eko gehikuntza eginda, hauek izango dira antzinatasunezko osagarri pertsonalaren indarreko zenbatekoak azpitalde bakoitzarentzat :

para este ejercicio 2017 se han visto incrementados en un 1%.

Complemento específico: retribuye las condiciones de especial dificultad técnica, dedicación, responsabilidad, incompatibilidad, peligrosidad o penosidad y su cuantía viene fijada en la Relación de Puestos de Trabajo. La aplicación de estos criterios supone un cambio en las cuantías que tiene reflejo en la RPT, y también en el complemento de destino, por lo que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local corresponde al Pleno su aprobación e incremento en un 1%.

Complementos Personales de Antigüedad y Transitorio: Parte del personal al servicio del Ayuntamiento de Getxo viene percibiendo como consecuencia de la Adecuación Retributiva aprobada mediante acuerdo plenario de fecha 31 de octubre de 2008. Dicho acuerdo adecuaba a las disposiciones recogidas en el acuerdo UDALHITZ los conceptos retributivos que anteriormente se venían percibiendo. El artículo 85 del citado UDALHITZ preveía la percepción de estos complementos para aquellos supuestos en los que por aplicación del nuevo sistema retributivo se produjera una minoración sobre las retribuciones que se vinieran percibiendo anteriormente. Estos complementos son actualizables por lo que corresponden aplicarles un incremento del 1% a las cuantías vigentes para cada uno de los subgrupos con el incremento operado del 1% serán las siguientes:.

| **Taldea / Azpitaldea EBEP**<br>***Grupo / Subgrupo Ley 7/2007*** | **Hirurtekoak OP**<br>***Trienios CP*** |
|---|---|

| | |
|---|---|
| A1 | 31,21€ |
| A2 | 30,31€ |
| C1 | 26,06€ |
| C2 | 26,52€ |
| **Talde profesionalak** Agrupaciones profesionales | 27,01€ |

Bigarrena.- Langileen ordainsariak % 1 gehitzea, funtzionarioen kontzeptu berberetan.

Segundo.- Incrementar las retribuciones del personal laboral en conceptos análogos a los del personal funcionario en un 1%.

Hirugarrena.- Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea, aipatutako erabakiak aplikatu ahal izateko.

Tercero.- Aprobar la modificación de la RPT en orden a la aplicación de dichos acuerdos.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabakiak betearazteko.

Cuarto.- Facultar al Alcalde para la ejecución de los acuerdos.

Bosgarrena.- Erabaki hau BAOn argitaratzea, baita aurreko bigarren puntuan ezarritakoaren arabera aldatuko den Lanpostuen Zerrenda ere.

Quinto.- Publicar el presente acuerdo, juntamente con la RPT modificada por el contenido del punto segundo anterior, en el BOB.

**177.- KATEGORIA ALTUAGOKO FUNTZIOAK BEHIN-BEHINEAN ESLEITU DIREN KASUETAN LANPOSTU-MAILAKO OSAGARRIAREN ALDEA ORDAINTZEKO ERABAKIA.**

**177.- ACUERDO SOBRE EL ABONO DE LA DIFERENCIA DEL COMPLEMENTO DE DESTINO EN LOS CASOS DE ASIGNACIÓN PROVISIONAL DE FUNCIONES DE SUPERIOR CATEGORÍA.**

Proposamena irakurrita Eduardo Andradek hitz egin du. PPk 2008an goi-mailako kategorien lanaren ordainsariak onartu zirenean egin zuen bezala, kontra bozkatuko duela adierazi du. Bere ustez, eztabaida sakona eta lanpostuen balorazio orokorra egin behar da. Orain arte ukitu txiki batzuk onartu dituzte legealdi honetan lanpostuak baloratzeko konpromisoa

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade manifestando que el PP va a votar en contra como lo hizo en el año 2008 cuando se aprobaron las retribuciones del trabajo de superior categoría. Estima que es necesario un debate profundo y realizar una valoración de puestos de trabajo general. Hasta ahora se han ido admitiendo pequeños

zegoelako, baina ez dela balorazio hori egingo ikusi dute.

retoques poque había un compromiso de realizar una valoración de puestos de trabajo en esta lesgislatura pero observan que está no se va a realizar.

Ibon Rodriguezek dio sindikatu guztiak ados daudela proposamenarekin, eta aurrerapen txikitzat hartu dute hori. Lan berak ordainsari bera izan behar duela eta goragoko kategoriako lan-egoera horiek funtsean gobernu-taldearen aurreikuspen-faltarengatik gertatzen direla uste du.

Ibon Rodriguez indica que todos los sindicatos están de acuerdo con la propuesta, que la valoran como un pequeño avance. Cree que el mismo trabajo debe tener la misma remuneración y que estas situaciones de trabajo de superior categoría se producen básicamente por falta de previsión del equipo de gobierno.

Inazio Uriartek erantzun du duela asko, langileen arduradun teknikoa lanean hasi zenean, plan bat aurkeztu zutela lanpostuak baloratzeko eta udal zerbitzuak hobeto emateko beste neurri batzuk hartzeko. Hori bera informazio-batzordean azaldu da, egiteko aurreikusita dauden jardueretan zer puntutan dauden adieraziz. Zenbait sindikatuk gero eta argiago ikusten dute jarduera horiek egingo direla, eta bitartean beste neurri batzuk hartzen ari dira langileen arloan, hala nola urtero LEP onartzea. Bai informazio-batzordean, bai Negoziazio Mahaian, sindikatuei beharrezkoak diren azalpen guztiak ematen jarraitu nahi duela adierazi du.

Inazio Uriarte contesta que hace bastante tiempo, con la incorporación del responsable técnico de Personal, se ha presentado un plan de realizar una valoración de puestos de trabajo y otras medidas para mejorar la prestación de los servicios municipales. Esto mismo se ha explicado en la comisión informativa indicando en qué punto se está en las actuaciones previstas a realizar. Hay sindicatos que ven cada vez más claro que esas actuaciones se van a realizar y entre tanto se están adoptando medidas en materia de personal como son aprobar anualmente la OPE. Manifiesta su voluntad de seguir dando todas las explicaciones necesarias tanto en la comisión informativa como a los sindicatos en la Mesa de Negociación.

Proposamena bozkatu eta emaitza hau egon da: Aldeko 19 boto, EAJ, GUK eta EH Bilduren eskutik; kontrako 5 boto, PPren eskutik, eta 1 abstentzio Ciudadanos alderdiaren eskutik.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, GUK, EH Bildu, PSE-EE; 5 votos en contra, PP; 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA.- Ekoizpen kontzeptuan funtzioen aldi baterako esleipenagatik aplikatzen den konpentsazio ekonomikorako irizpidea aldatzea onestea, honako edukiarekin:

"Funtzionario bati maila altuagoko lanpostu baten funtzioak esleitzen zaizkionean, ekoizpen kontzeptu gisa, bere lanpostuaren eta esleitzen zaizkion funtzioen lanpostuaren ordainsari osagarrien (lanpostu-mailako osagarriaren eta berariazko osagarriaren) arteko aldeak ordainduko dira. Orain arte indarrean dauden gainerako irizpideak aldatu gabe mantenduko dira".

BIGARRENA.- Erabaki honen ondorioak hau onetsi eta hilabeteko epean indarrean jarriko dira.

PRIMERO.- Aprobar la modificación del criterio para la compensación económica por la asignación provisional de funciones en concepto de productividad, con el siguiente contenido:

"Cuando un/a funcionario/a sea objeto de una asignación provisional de funciones en un puesto de nivel superior en el concepto de productividad se abonarán las diferencias entre las retribuciones complementarias (destino y específico) de su puesto de trabajo y las del puesto cuyas funciones le sean encomendadas. Permanecerán inalterables los demás criterios vigentes hasta la fecha."

SEGUNDO.- El presente Acuerdo surtirá efectos a partir del mes siguiente a la fecha de su aprobación.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**178.- XEHETASUNEZKO AZTERKETA BEHIN BETIKO ONESTEA, MANUEL SMITH KALEKO 1EKO ERAIKINA (EL CHALET JATETXEA) ORDEZTEARREN.**

Proposamena irakurrita Iñaki Gamerok hitz egin du. PPk xehetasunezko azterketaren aurka bozkatuko duela esan du, bere ustez, zuzen daitekeen akats bat duelako, eta espedientean ez delako nahikorik zuzendu. Kalitate oneko eraikin bat eraitsiko dutela esan du, izan ere, ekonomia-jarduera bat zuen, eta eraikin berri bat jarriko duela haren tokian. Babes akustikoa ez dagoela nahikoa bermatuta uste dute. Horren arrazoia da lursailaren zaratari

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**178.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA SUSTITUCIÓN DEL EDIFICIO SITO EN EL Nº 1 DE LA C/MANUEL SMITH (RESTAURANTE EL CHALET)**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Iñaki Gamero para manifestar que el PP va a votar en contra del estudio de detalle ya que en su opinión adolece de un defecto corregible y la corrección se ha realizado de manera insuficiente en el expediente. Manifiesta que se derriba una edificación de calidad, que albergaba una actividad económica para sustituir por una edificación de nueva planta. Creen que la protección

buruzko indarreko udal mapa A motakoa dela, eta gehieneko dezibelio batzuk ez gainditzea bermatzen duen isolamendua eskatzen duela. Espedientean, muga horiek ezin direnez lortu, beste arautegi batera jotzen da, zaratak kentzeko beste baldintza batzuk dituelako. Zaraten mapara egokitu behar dela uste dute; bestela, aldatu. Udalerrian etxebizitzak eraikitzeko, askotan, egoera onean dauden eraikinak eraitsi behar direla dio, eta hori gertatzen dela HAPOren azterketak etenda dagoelako. Kasu honetan, egoera onean dagoen eraikin bat eraisteaz gain, ekonomia-jarduera bat ere kentzen da. Horren ondorioz, udalerrian pixkanaka jarduera galtzen ari da.

acústica no está suficientemente garantizada, se basa para ello en que el mapa de ruido municipal vigente de la parcela es del tipo A y le exige un aislamiento que garantice no superar unos límites de decibelios. En el expediente ante la imposibilidad de alcanzar esos límites se acude a otra normativa con otros requisitos de eliminación de ruidos. Creen que hay que adaptarse al mapa de ruidos o si no cambiarlos. Reflexiona también acerca de que para construir viviendas en el municipio muchas veces haya que derruir edificios en buen estado y esto se debe a la paralización de la revisión del PGOU. En este caso, además de derribarse un edificio en buen estado se elimina una actividad económica con lo que se acrecienta la progresiva pérdida de actividad en el municipio.

Joseba Arregik esan du harrituta uzten duela PPren argudiaketak, indarreko plangintzak onartzen dizkien eskubideak erabiltzen dituzten jabe batzuen erabaki bat delako. Espedientean zarataren jatorria jasotzen dela dio, eta PPko bozeramaileak horri buruz ez duela ezer esan. Galdetu du ea kalearen tarte hori oinezkoentzat egin nahi duten, ezinbesteko neurria baita hori zarataren mapan ezarritakoa betetzeko.

Joseba Arregi manifiesta que le causa perplejidad la argumentación del PP ya que lo que se presenta no es más que el fruto de una decisión de unos propietarios que ejercen unos derechos que el planeamiento vigente les reconoce. Manifiesta que en el expediente se recoge el origen del ruido pero sobre eso el portavoz del PP nada ha querido decir y se pregunta si se quiere peatonalizar ese tramo de calle, medida necesaria para cumplir lo indicado en el mapa de ruido.

Nerea Guijarrubiak esan du EH Bilduk kontrako botoa emango duela, aurrekoetan bezala, proposamen horrek ez diolako erantzuten EH Bilduren hirigintza-ereduari, ez dutelako hobekuntzarik ikusten erkidegoarentzat, ez duelako barne hartzen inolako etxebizitza babesturik. Gobernu-taldeak HAPOren azterketan ezer ez egitea ere kritikatu du, hori dela eta xehetasunezko azterketa hori,

Nerea Guijarrubia manifiesta que EH Bildu votará en contra, como en ocasiones anteriores, ya que esta propuesta no responde al modelo de urbanismo de EH Bildu ya que no ven que disponga de ninguna mejora para la comunidad porque no incorpora ningún tipo de vivienda protegida. También se oponen para criticar la falta de actividad del equipo de gobierno en la revisión del PGOU, ya que ello hace

zaharkitua dagoen HAPO batean oinarritzen delako. Bere ustez, Gobernu taldeak ez du legealdi honetan HAPO aztertzeko asmorik.

que este estudio de detalle se base en un PGOU que está caduco. Estima que el equipo de gobierno no tiene ninguna intención de revisar el PGOU en la presente legislatura.

Enrique Pradak dio GUK abstenituko dela, eta ez dutela gai honetan etxebizitzaren eta hiri-ereduaren eztabaida proposatuko. HAPO aztertzea premiazkoa da bere ustez, eta zer eredutan lan egin nahi duten ezarri behar da, eremuen arabera hainbat eredu daudelako, hala nola Iturribarri, Ormaza eta abar.

Enrique Prada manifiesta que GUK se va a abstener y no van a plantear en este tema el debate de la vivienda y el modelo de ciudad. Cree urgente la revisión del PGOU y definir en que modelo se quiere trabajar ya que existen modelos diferentes según zonas como Iturribarri, Ormaza, etc.

Proposamena bozkatu eta emaitza hau egon da: Aldeko 11 boto, EAJ, PSE-EEren eskutik; kontrako 9 boto, PP, EH Bilduren eskutik, eta 5 abstentzio Ciudadanos eta GUK alderdien eskutik.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 9 votos en contra, PP, EH Bildu; 5 abstenciones, GUK, Ciudadanos.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA.-
I.- JOSE RAMÓN DARRIBA ROBLEDO jaunak, CONSTRUCCIONES LOIBE 2000, SLren izenean eta ordezkaritzan, Manuel Smith kaleko 1.ean (El Chalet jatetxea) dagoen eraikina ordezkatzeko aurkeztu duen xehetasun azterlana behin betiko onestea. Kontuan hartu beharko dira hasierako onespenean azaldutako baldintzak.

PRIMERO.-
I.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. JOSE RAMÓN DARRIBA ROBLEDO, en nombre y representación de CONSTRUCCIONES LOIBE 2000, S.L., para la sustitución del edificio sito en el nº 1 de la calle Manuel Smith (restaurante El Chalet), debiendo tener en cuenta las condiciones señaladas a la aprobación inicial.

Xehetasun azterlan horrek egoera akustikoei buruzko txosten tekniko bat barne hartzen du. Bertan ondorioztatzen denaren arabera, babes akustiko bereziko zona aitortu beharra dago, dagokion zonako planarekin.

Este Estudio de Detalle incluye un informe técnico acerca de las condiciones acústicas, del que resulta la necesidad de declarar una Zona de Protección Acústica Especial, con su correspondiente Plan Zonal.

II. Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

III.- Interesdunei jakinaraztea, egokiak diren errekurtsoak adieraziz.

BIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari erabaki horiek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi adina ebazpen hartzeko ahalmena ematea.

II.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

III.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**179.- PNV-EAJ, GUK ETA EH BILDU UDAL TALDEEK ELKARREKIN BATEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA: KATALUNIAKO GERTAKARIAK.**

Koldo Iturbek euskaraz irakurri du mozioa eta Paula Amievak gaztelaniaz irakurri du.

Raquel Gonzalezek dio harrituta dagoela udalak alarma eta gaitzespena sentitzearekin Audientzia Nazionalaren espetxeratze-agindu baten aurrean, eta EAJri galdetu dio zergatik egiten duen epailearena. Horrek urduri jartzen du, eta kezkatuta dago nora ez independentista horrek zenbateraino eragin dezakeenarekin. Bere ustez, EAJ tunel ilun batean sartzen ari da, eta ezagutu diren egoeretara itzul daiteke. Horrek, gorrotoa gizartera heltzea eragin dezakeela, eta enpresek Euskaditik ihes egitea eta kaosa nagusitzea. Horretarako, mozioaren bosgarren puntuan adierazten denera jotzen du. Bere ustez, horretarako hauteskundeak daude, eta une horretan erabakitzen da norberak zer etorkizun nahi duen, eta EAJk ez badu onartzen hori dela jokatzeko modua, egoera are kezkagarriagoa da.

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**179.- MOCIÓN CONJUNTA DE LOS GRUPOS MUNICIPALES PNV, GUK, EH BILDU S/LOS ACONTECIMIENTOS DE CATALUYA.**

Koldo Iturbe da lectura a la moción en euskera y Paula Amieva la lee en castellano.

Raquel González manifiesta que le sorprende que el ayuntamiento sienta alarma y rechazo contra una orden de prisión de la Audiencia Nacional, pregunta al PNV porque se erige en juez y esto le pone nerviosa y también le preocupa hasta que punto esta imbuido de la deriva independentista. Cree que el PNV está entrando en un túnel oscuro y puede volverse a las situaciones que se han conocido y que esto va a suponer que el odio llegue a la sociedad, que las empresas huyan del País Vasco y que prime el caos. Para ello se remite a lo que se indica en el punto cinco de la moción, discrepando de su contenido ya que para ello cree que existen las elecciones y en ese momento se decide el futuro que cada uno quiere y si por parte del PNV no se reconoce que esa es la forma de actuar la situación es aún más preocupante.

Teresa Escalantek dio mozioa erabaki judizial bati egindako kritika politiko bat dela, eta hori bidezkoa dela zuzenbideko estatu batean. Bere ustez kezkagarria da zuzenbideko estatu batean Estatuko Fiskal Orokorrak oraindik gertatu ez diren gertaerei buruzko zehapen kalifikazio juridikoak aurreratzea. Bere ustez, atxilotuek ez dute egin Fiskaltzak erabiltzen dituen tipo penal horiekin bat datozen jarduerarik, eta ez dirudi ihes egiteko arriskurik dagoenik, Fiskaltzak Jordi Cuixart eta Jordi Sanchez espetxeratzeko duen interesa justifikatzeko. Hala ere, onartzen du epaile batek hartu duela erabakia, eta hortik aurrera atxilotuek erabil ditzaketen eskubide batzuk dagoeneko dituztela. Bere ustez, mozioaren edukia, errealitatearekin bat ez datorren oso ikuspegi berezi bat dela. Alderdi Sozialistak legezkotasuna aipatzen du, baina liskarrak eragin gabe, eta gogoratu du Kataluniako azken hauteskundeetan biztanle gehienak independentziaren alde zeudela.

